

PROBA ESPEZIFIKOA

2021eko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

AZALPENAK

Probaren iraupena: ordubete.

Azterketaren egitura eta atal bakoitzaren puntuazioa:

2 galdera teoriko; guztira, 3 puntu. Galdera bakoitzaren gehieneko balioa 1,5 puntu izango da.

2 problema; guztira, 4 puntu. Atal honetan, ikasleak 3 problemaren artetik 2 hautatu eta ebatzi beharko ditu. Problema bakoitzaren gehieneko balioa 2 puntu izango da.

Test motako 10 galdera. Lau erantzun daude aukeran, baina bat bakarrik da zuzena. Testak, guztira, **3 puntu** balio du. Erantzun egoki bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko 0,1 puntu kenduko dira, eta erantzun gabe utziz gero, ez da punturik kenduko. Atal honetan, dena dela, azken emaitza ez da inoiz negatiboa izango.

Galdera teorikoetan eta problemetan, atal bakoitzaren balorazioa adierazita dago, baita zuzentzeko irizpidea ere (letra etzanez eta letra-tamaina txikiagoan).

GALDERA TEORIKOAK:

- 1) Adierazi lehen mailako hiru premia, bigarren mailako bi, hiru premia kolektibo eta hiru indibidual.
- 2) Definitu nazio-produktu gordina (NPG).

PROBLEMAK

- 1) Urtean 1500 ordenagailu egiten dituen enpresa bat ordenagailuentzako disko gogorrak berak fabrikatzeko edo enpresa laguntzaile bati erosteko dilemaren aurrean dago. Enpresa laguntzaileak 200 € kobratzen dio saltzen dion disko gogor bakoitzeko. Disko gogorrak berak egitea erabakitzen badu, urtean 60.000 €-ko kostu finkoak jasan behar ditu, eta fabrikatzen duen disko gogor bakoitzak 150 €-ko kostu aldakor unitarioa izango du. Hau eskatzen da:
 - a) Baldintza horietan, erabaki ezazu zer interesatzen zaion enpresari: berak disko gogorrak ekoiztea edo enpresa laguntzaileari erostea. Arrazoitu erantzuna. (1 puntu)
 - b) Zer gertatuko litzateke urtean 1500 ordenagailu izan beharrean 1000 ordenagailu fabrikatuko balitu urtean? Kasu honetan, arrazoitu ea interesgarriagoa den enpresarentzat ordenagailuentzako 1000 disko gogorrak berak ekoiztea edo enpresa laguntzaileari erostea. (1 puntu)
 - c) Kalkulatu urtean zenbat ordenagailu ekoiztu beharko lituzkeen disko gogorrak erostea edo berak ekoiztea berdina izan dadin. (0,5 puntu)



ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

2) Bureau SA enpresak bulego-materiala merkaturatzen du, eta 100 unitateko segurtasun-stocka izan ohi du biltegian. Hornidura-eskaerek 10 egun behar izaten dituzte iristeko, eta eskaera bakoitzaren bolumena 500 unitatekoa izaten da. Hilean, batez beste, 300 unitate saltzen dira. Oharra: hilabeteek 30 egun dituzte.

Kalkulatu:

- Eskaera-puntua.
- Batezbesteko stock-maila.
- Errotazio-indizea.
- Biltegiko mugimenduen irudikapen grafikoa.
- Zer ondorio ditu stock-hausturak?

3) AZKOITI SA enpresak 2020-12-31n honako ondare-elementu hauek aurkeztu ditu

Epe laburreko zorrak	6.000
Askotariko altzariak	800
Enpresa kudeatzeko programa informatikoak	7.200
Produktu bukatuak.....	1.100
Enpresaren aholkularitzak emandako zerbitzu oraindik ordaindu gabeak.....	3.010
Enpresa kudeatzeko ordenagailuak	3.000
Erreserbak.....	5.000
Kapital soziala	?
Salgaiak garraiatzeko kamioi bat.....	22.500
Lan egiteko lokala	25.000
Makineria	15.000
Kobratzeko dauden bezero-fakturak.....	1.200
Hornitzaileekiko zorrak, onartutako kanbio-letretan dokumentatuak	190
Dirua, zenbait banku-kontutan	4.900
Salgaiak.....	1.500
Banku bati eskatutako epe luzeko mailegua.....	2.500
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua.....	3.200
Hornitzaileekiko zorrak	3.200
Irabaziak	2.300
Eskudirua	1.700

Hau eskatzen da:

- Kapital soziala kalkulatzeko. (0,5 puntu)
- 2020ko abenduaren 31ko egoera-balantzea egitea, ondare-masatan ordenatuta eta taldekatuta. (0,75 puntu)
- Maniobra-funtsa kalkulatzeko eta azaltzeko, eta grafiko baten laguntzaz interpretatzeko. (0,5 puntu kalkulua eta 0,25 puntu interpretazioa).



TEST MOTAKO GALDERAK

- 1) Makroekonomiak arazo hauek aztertzen ditu:
 - a) Enpresa baten makineria-premiak.
 - b) Zergek enpleguan duten eragina.
 - c) Tomateen merkatuko prezioa.

- 2) Hauek dira oinarrizko alderdi ekonomikoak:
 - a) Zer ekoitzi, nola ekoitzi, nork ekoitzi.
 - b) Zer ekoitzi, nola ekoitzi, norentzat ekoitzi.
 - c) Zer ekoitzi, nola ekoitzi, zein da prezioa.

- 3) Adam Smith-ek uste zuen...
 - a) Gizabanako bakoitzak, bere onura bilatzean, gizartearen onura orokorrari laguntzen ziola.
 - b) Kapitalistek langileen lanaren onurak bereganatzen zituztela.
 - c) Estatuak ekonomian esku hartu behar zuela inbertsioen eta subsidioen bidez.

- 4) Enpresa batek kobratzeko dituen eskubideak enpresa espezializatu bati prezio jakin batean saltzea epe laburreko finantzaketa-eragiketa bat da. Zer izen du?
 - a) Renting-a.
 - b) Factoring-a.
 - c) Leasing-a.

- 5) Inbertsio bat egin ahal izateko, haren itzulerako barne-tasak honako hau izan behar du:
 - a) Zero baino handiagoa.
 - b) Balio erantsi garbia baino handiagoa.
 - c) Eguneratze-tasa baino handiagoa.

- 6) Enpresa baten egitura ekonomikoa:
 - a) Aktiboari dagokio.
 - b) Enpresaren finantza-egitura da, gauza bera da.
 - c) Erabilitako finantzaketa-iturri guztiak jasotzen ditu.

- 7) Amortizazioak zelako inbertsio mota dira?
 - a) Mantentzekoak
 - b) Hazkunderakoak.
 - c) Immaterialak.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

ENPRESAREN EKONOMIA *ECONOMÍA DE LA EMPRESA*

- 8) Produktu baten bizi-zikloa:
- a) Luzeagoa da produktu teknologikoetarako.
 - b) Komunikazio-politikari dagokio.
 - c) Produktu baten salmentak denbora aldagaiarekin erlazionatzen ditu.
- 9) Enpresa baten merkatu-kuota hau da:
- a) Salmentak/bezero kopurua
 - b) Enpresaren fakturazioa/sektorearen fakturazioa
 - c) Produktu baten salmentak/Enpresaren salmenta guztiak
- 10) Etxe bat eraikitzeke erabilitako adreiluak zer kostu mota dira:
- a) Finkoak eta zuzenak.
 - b) Finkoak eta zeharkakoak.
 - c) Aldakorrak eta zuzenak.



**EBAZPENA ENPRESAREN EKONOMIA
(2021)**

GALDERA TEORIKOAK

1. –

Primarioak	Elikagairen bat kontsumitzea
	Gorputzaren tenperatura mantentzea
	Gorputzak sortutako hondakinak iraitzea
	Bainatzea
	Etxebizitza
	Airea arnastea
	Ura edatea
	Egun bakoitzeko atseden-ordu kopuru bat hartzea
	Hozkailua
...	
Sekundarioak	Banda zabala edukitzea
	Telebista digitala
	Autoestimua
	Afektua
	Kolektibitate bateko kide dela sentitzea
...	
Indibidualak	Segurtasuna
	Komunikazioa
	Garraioa
	Osasuna
	Hezkuntza
...	
Kolektiboak	Premia fisiologiko kolektiboak
	Premia sozialak: taldeko gainerako kideekin identifikatzea eta haiek onartzen zaituztela sentitzea, bizi-kalitate handiagoa bilatzea (adiskidetasuna, maitasuna)
	Estimu-premiak: taldeko gainerako kideek estimatua izatea: prestigioa, boterea, estatusa eta posizioa
	Autorrealizazio-premiak
...	

2. - Honela definitzen da: barne-produktu gordina¹ ken atzerriko enpresak herrialdean lortutako errentak gehi herrialdeko enpresek atzerrian lortutako errentak.

(1) BPGa: Herrialde batean denboraldi batean (eskuarki, urtebete) ekoizten diren azken ondasun eta zerbitzuen balioa da, dirutan adierazia.



ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

PROBLEMAK

1. a.-

- Erosteko aukera: $\text{Prezioa} \times \text{Kopurua} \rightarrow 200 \times 1500 = 300.000 \text{ €}$
- Fabrikatzeko aukera: $\text{Kostu finkoak} + \text{kostu aldakorak} \rightarrow 60.000 + (1.500 \times 150) = 290.000 \text{ €}$

Merkeagoa da ekoiztea.

b.-

- Erosteko aukera: $\text{Prezioa} \times \text{Kopurua} \rightarrow 200 \times 1000 = 200.000 \text{ €}$
- Fabrikatzeko aukera: $\text{Kostu finkoak} + \text{kostu aldakorak} \rightarrow 60.000 + (1.000 \times 150) = 210.000 \text{ €}$

Merkeagoa da erostea.

c.-

- Erosteko aukera = Fabrikatzeko aukera
- $\text{Prezioa} \times \text{Kopurua} = \text{Kostu finkoak} + \text{kostu aldakorak}$

$$200 \times Q = 60.000 + (150 \times Q) \rightarrow Q = \frac{60.000}{200 - 150} = 1.200 \text{ unitate.}$$

2. a.- Eskaera-puntua = Segurtasun-stocka + hornikuntza-epearen kontsumoa (10 egun)

Hornikuntza-epearen kontsumoa: $(300/3) \times 10 = 100 \text{ unitate.}$


Eskaera-puntua = $100 + 100 = 200 \text{ unitate.}$

Biltegian 200 unitate geratzen direnean, beste eskaera bat egin beharko da.

b.- Batez besteko stocka = $\text{segurtasun-stocka} + (Q/2) = 100 + 500/2 = 350 \text{ unitate.}$

c.- Errotazio-indizea: $\text{urteko kontsumoa} / \text{batez besteko stocka} = (180 \times 12) / 350 = 61,71 \text{ aldiz.}$

d.- Stockak hautsi egiten dira enpresa biltegian produkturik gabe geratzen denean. Horrek bezeroari arreta ez ematea edo ekoizpen-katea gelditzea ekar dezake.





ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

3. a.- Kapital soziala 48.690 € da.

b.-

AKTIBOA		ONDARE GARBIA + PASIBOA		
Aktibo ez-korrontea	61.200	Ondare garbia	55.990	
Pro. inform	1.100	Kapital soziala	48.690	
Eraikinak	25.000	Erreserbak	5.000	
Garraio-elementuak	22.500	Ekitaldiaren emaitza	2.300	
Altzariak	800			
Makineria	15.000			
Amortizazio metatua	-3.200	Pasibo ez-korrontea	2.500	
Aktibo korrontea	9.490	Epe luzeko mailegua	2.500	
Izakinak	1.500	Pasibo korrontea	12.200	
Bezeroak	1.200	Epe laburreko mailegua	6.000	
Bezeroak merkat. efektuak	190	Hornitzaileak	3.200	
Zordunak		Zerbitzu...	3.000	
Bankua k/k	4.900			
Kutxa	1.700			
AKTIBOA GUZTIRA	70.690	ONDARE GARBIA + PASIBOA GUZTIRA	70.690	

c.- Maniobra-funtsak enpresaren epe laburreko finantza-oreka zehazten du. Ondare garbiak eta pasibo ez-korronteak aktibo korrontearen zati bat finantzatzen dute.

Maniobra-funtsa = Aktibo korrontea – Pasibo korrontea = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) – Aktibo ez-korrontea.

Enpresa honen kasuan, maniobra-funtsa hau da:

Maniobra-funtsa = 9.490 – 12.200 = (55.990 + 2.500) – 61.200 = -2.710 euro.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Aktibo ez-korrontea		Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea
61.200		58.490
	M F	Pasibo korrontea
	-2.710	12.200
Aktibo korrontea		
9.490		

Enpresa **ez dago** oreka finantzarioan. Epe laburreko ondasun eta eskubideekin ezin dio epe laburreko galdagarriari aurre egin, epe laburreko finantzaketak ibilgetuaren zati bat finantzatzen du.

Enpresa teknikoki hartzekodunen lehiaketan dago.

TEST MOTAKO GALDERAK

1. b; 2. b; 3. a; 4. b; 5. a; 6. b; 7. a; 8. c; 9. b; 10. c.